

nork
noiz
non
nola
zergaitik

...



galdetu



UPV/EHUKO IKASLEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU



lagun estimatua

Ekimen honen bidez gugan hain eragin handia duen kudeaketarako araudiaren ezagupena sustatu nahi dugu. Ez dugu ondo ezagutzen eta araudi hori da matrikulatzeko, edo eta ikasketa prozesuko eta ebaluatzeko orduan ditugun arazoak konpontzeko gakoa duena.

Oraingo honetan, eta azterketa garaian gaudela, "ikasleriaren ebaluazioa" atalean jarri dugu arreta berezia. Galdera batzuk planteatu ditugu eta erantzuna eman dugu, zuri informazioa erraztu nahian eta azterketak zuzentzeko orduan irakasleekiko gatazkak daudenean, konponketarako bideak zehazte aldera.

Gatazkarik gehienak konponduko dira irakaslearekin zuzenean hitz eginda: Arrazoi ona ematen bazaio, irakasleak ulertu ohi du: Baina, batzuetan, konpondu ezineko arazoak gertatzen dira eta araudira jo beharra dago. Horregatik, prestatu dugun honek baliagarri gertatuko zaigu

Liburuxka hau araudiaren gaineko azalpenak emateko egin dugu. Arazoren bat baduzu eta konpondu ezinik bazabiltza, zalantzarik ez izan eta jar zaitez gurekin harremanetan. Laguntzen saiatuko gara.

Agur beroa,

Ikasleen Kontseilua

**Eskuliburu hau honako araudian oinarritua izan da "Normativa de gestión para las enseñanzas de primer y segundo ciclo. Curso 2007-2008"*

IKASTURTEAREN HASIERA

Zein da zentroak eman beharreko informazioa ,matrikula egin baino lehenago?

Zentroak zure lizentziaturaren ikasgai guztien gaineko informazioa eman beharko dizu eta horrekin batera, helburuak, egitasmoa, irakasleak, ikasgaiarekin doazen ekimenak eta azterketetarako aldia (41. artikulua)

Taldez aldatu nahi dut. Noiz eta nola eskatu behar dut?

Matrikula eginda dagoenean, araudiak ahalbidetzen du talde aldaketa beti Zentroak ezarri duen aldian..

Eskari kopurua handiegia bada, Zentroak ezarriko ditu irizpide objektiboak erantzunarekin ados ez bazaude, kontsultatu ahal izateko.

Irakaslea hainbat eskola ordutara ez da etorri. Zer egin behar dut?

Egoera hauetan, ikasleen ordezkaria, aukeratua bada (bestela edozein ikasle) Departamentuko zuzendariarengana joan ahal



da eta egoeraren gaineko informazioa eman. Departamentuak beste irakaslea izendatu beharko du ordezeko giza.

Ikasgaiaren gaineko zalantzak ditut. Zer egingo dut?

Irakasleak tutoretza orduak ezarri behar ditu. Ordu hauetan joan ahal izango zara zalantzak argitzera.

Irakaslea zenbat tutoretza ordutara dago derrigortuta?

Normalean irakasleak astean ematen ditu 6 tutoretza ordu. Batzuetan irakasleek tutoretza ordu gutxiago eman behar dute..

Ezin naiz ordutegi horretan joan. Zer egingo dut?

Irakasleak malguak izan ohi dira eta prest egoten dira ordutegi aldaketa egiteko. Horregatik gomendatzen dizugu irakaslearekin berba egitea eta beste data ezartzea.

AZTERKETA EGUTEGIA

Nork onartzen du azterketa egutegia?

Azterketa egutegia Fakultateko Batzordeak onartzen du zentroko zuzendaritzak proposatuta, . Kontuan hartzen da departamentuen eta zentroko Ikasle Batzordearen iritziak.

Ze datu agertuko dira Egutegian?

Azterketa egutegian agertuko da azterketa bakoitza egingo den data, ordua eta gela.

Noiz eman behar da ezagutzera?

Unibertsitateko araudiak ezartzen duenaren arabera, ezagutzera eman behar da gutxienez azterketak hasi baino hila-bete lehenago.

Ikasleen Kontseiluak ikasturte osoan eskatu du ikasturte hasieran ezagutzera ematea, ikasleek beren azterketak planifikatu ahal dezaten.

Datak aldatu ahal dira? Nork proposatzen ditu aldaketak?

Bai, onartutako datak aldatu ahal dira. Hau gertatu ahal bada ere, data aldatzea ezin da edonola gertatu. Ondo arrazoituta egon behar da eta Dekanatuak onartu behar du Zentroko Ikasle Batzordeari entzun ondoren. Aldaketa hauek ezin izango ditu irakasleak proposatu, baizik eta Departamentuak (50.1. artikulua)

Zer egin behar dut egun berean azterketa bi badituz?

Jakin behar duzu data kointzidentzia dela azterketa biak egun berean direnean eta goiz edo arratsaldeko txanda berean.

Horrelakorik gertatzen bada, ikasleak irakasleari eskatu behar dio data aldaketa, azterketa egin baino hamabost egun lehenago. (50.3; 50.4; 50.5 eta 50.6 art.)



EBALUATZEKO SISTEMA

Noiz ezarri beharko dira Ebaluatzeako irizpideak?

Irakasleak adierazi behar du ebaluatzeako sistema ikasturte hasieran. (45.2 art). Normalean irizpide hauek ez dira aldatzen, baina aldatu ahal izango dira arrazoiren bat egon ezkerro (45.5 art.)

Gelan garatu ez diren gaiak sar daitezke azterketan?

EZ. Araudiak adierazten du ez dizutela azterketan sartuko " irakasleak eman ez dituen gaiak, ikasgaiaren programan sartu badira ere" (45.5 art.)

Hau gertatzen bada, harremanetan jarri behar duzue Ikasle Batzordearekin edo ikasleen bestelako ordezkariarekin, hau delako azterketa errepikatzeako arrazoi bat (49.2.d.1. art.)

Zeintzuk dira ebaluatzeako moduak? Proposatutako modua da ahozko azterketa. Egin ahal da?

Irakasleak ezarri ahal izango du egokien jotzen duen sistema. Honek esan nahi du ebaluazioa azterketen bidez egin ahal dela, lanen bidez edo biak batera (45.3. art.) eta etengabeko ebaluazioa edo amaierakoa izan daiteke.

Halaber, irakasleak ahozko edo idatzizko azterketaren arteko aukera egin ahal izango du.. Lehen kasuan ahozko azterketak publikoak izango dira. Nahi baduzu, irakasleak grabatu behar du azterketa , balizko erreklamazioei begira. (46.1. art)



Irakasleak zatikako azterketak egin ahal ditu?

Bai. Irakasleak zatikako azterketak egin ahal izango ditu ikasgaiaren etengabeko ebaluazioa egiteko, baina horrela ezarri beharko da ikasturte hasieran adierazitako ebaluazio sisteman. (46.2. art.)

Amaierako azterketa derrigorrezkoa da?

Bai. Esan dugu lehen ere , irakasleak etengabeko ebaluaketa egin dezakeela . Araudiaren arabera , ikasle zaren aldetik azken azterketa izateko eskubidea duzu eta beti gelan emandako edukiekin (45.d art.)

LANAK EMATEA

Hainbat lan eman ditut. Irakasleak itzuli behar dizkit?

Bai, baina hori irakasleari eskatu behar diozu. Gure gomendioa da Zentroko Idazkaritzako Erregistroan egitea eta irakasleari zuzentzea eskari hori nota eman eta bi hilabete beranduago. (art. 51.2)

Irakasleak gure lana argitaratu nahi du baimenik gabe.Egin dezake?

Ez. Egiten dituzun lanen argitalpenari begira, zatikakoa edo osorik, BETI derrigorrezkoa izango da egileen baimena hirugarren batek argitaratu ahal izateko.



AZTERKETAK

Irakasleak nortasuna egiaztatzea eskatu ahal du?

Bai. Irakasleak ikasleei eskatu ahal die nortasuna egiaztatzea. Ikaslea derrigortuta dago bere nortasuna egiaztatzerako, ikasle txartela, NAN edo bestelako legezko agiriren bidez (45.6. art.)

Bertaratze-egiaztapena eskatu ahal dut?

Bai, baina azterketara eraman beharko duzu irakasleak sina dezan. Zentroko idazkaritzan eskatu ahal da edo Fakultateko web gunetik jaitsi.

Ikasleen Kontseiluak gomendatu nahi du egiaztagiriak eskatzea. Azterketa galtzen bada, ikasleak egiaztatu ahal izango du azterketan egon dela. (50.2. art)

KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA

Zenbat denbora dute irakasleek notak emateko? Eta, egiten ez badu?

Azterketen kalifikazioak, zatikakoak edo azkenekoak izanda, irakasleek argitaratuko dituzte azterketa egin eta hurrengo 20 egunetan.

Irakasleak epe hauek betetzen ez baditu, araudiak ahalbidetzen du ikasgai bereko hurrengo azterketa eguna baino 7 egun lehenago argitaratzea.



Horrelako aukera ematen bada ere, ikasleen Kontseiluak gomen-
datzen dizu irakaslearekin hitz egitea. Honek ez badu kasurik egiten
ikasleen ordezkariaren batengana jo eta laguntasuna eskatu

Irakasleak azterketa erantzunekin eman behar du?

Ariketa praktikoetan emaitzak lortzeko bideak eman behar
ditu.

Notak argitaratzeko orduan, nire izena eta nota agertzen dira. Egin daiteke?

Datuen babesak pertsona oro kezkatzen ditu: Araudiak irakas-
leari eskatzen dio ikaslearen izenak ez ematea , intimitatea
gordetze aldera.

NAN zenbakia eta nota baino ezin dira agertu. (47.1. art.) Ho-
rrez gain, argitaratze data argi eta garbi agertu beharko da
berraztertzea eskatzeko epeak zenbatu ahal izateko. (47.1.
art). Gainera, azterketak berraztertzeke data eta ordua eman
behar da.

Notak bide informatikoen bidez eman behar dituzte?

Bai. (47.1. art)

Eta horregatik ez dira paperean argitaratzen?

Ez. Argitalpen horrek datuen babeserako legeak betetzen
badu. (47.1. art)



NOTEN GAINEN ERREKLAMAZIOAK

Irakaslea okertu egin da notak argitaratzeko orduan. Zer egingo dut?

Ikasgaiaren irakasle arduradunarengana jo beharko duzu ikasgaiaren aktetan dagoen errakuntzaz ohartu dadin. (. 47.1b art.)

Berraztertzean egon nahi dut. Eskubiderik dut?

Bai. Araudiak esaten du berraztertzean egon ahal zarela.. (49.2. art) Horrela ikusi ahal izango duzu zure iritzia eta irakasleak egindakoa bat datozen. Ados ez bazaude, instantzia ezberdinetara jo beharko duzu..

Berraztertzea , eskola orduetan da edo medikuenera joan behar dut. Eskubidea galtzen dut?

EZ. Kasu honetan, araudiak ezartzen du berraztertzerantz ezin bada joan esandako arrazoiengatik (eskola ordua, medikua,...) edo ondo arrazoitutako zio pertsonalengatik, data berrirako eskubidea izango da eta irakaslearekin adostu beharrekoa (49.2. art)

Ez nago azterketaren notarekin ados. Erreklamazioa egin ahal dut? Nola?

Bai, erreklamazioa egin dezakezu. Irakasleak data bat ezarriko du ados ez dauden ikasleak joan daitezten berraztertzerantz. Gero aktak zinatuko dira behin betiko notekin.

Ez nago azterketaren berraztatzearekin eta behin betiko notarekin ados. Berririo erreklamatzeko eskubidea daukat?

Ez bazaude emaitzekin ados, ikasleak idatziz aurkeztu ahal dio departamentuko zuzendariari bere erreklamazioa. Aktak argitaratu direnetik 5 asteguneko epean. (2b. art)

Erreklamazioa departamentuak horretarako izendatutako batzordeak konpondu beharko du , irakaslearen txostena ikusita eta ikaslearen bertsioa ere entzunda. Erreklamazioa aurkeztu denetik, gehienez, 8 asteguneko epean eman beharko da behin betiko emaitza.

Oraindik ere ez nago ados. Zer egingo dut?

Kasu honetan, bost eguneko epean, idazkia bidali beharko zaio Zentroko Dekanoari azterketa berririo ikustea eskatuz. Erantzuna gehienez eman beharko da 10 eguneko epean eta Zentroko Zuzendaritzak izendatutako batzordeak eman beharko du.

Azken ebazpen hau ez bada ikaslearen gogokoa, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Errektoretzan , Fakultateko Batzordeak ebazpena eman duen egunetik hilabeteko epean. Horrela amaituko da bide administratiboa.. (49.2f eta 49.2g art.)



DEIALDIAK

Zenbat deialdi daude?

Matrikula egindako ikasgai bakoitzeko 6 aukera daude. Hauez gain "graziazko" deialdia dago, azkena hain zuzen.

Ohiz kanpoko deialdiak

Ohiz kanpoko deialdiak ezartzen dira lizentziatura amaitzean daukaten ikasleentzat eta ikasgai batzuk gainditu gabe dituztela. Honek suposatzen du deialdia aurreratzea (Ekainekoa otsailera eta irailekoa ekainera) , lehenago amaitzeko.

Deialdi honetara sartzea nahi baduzu, betebeharrekoak zure zentruan galdetu. Deialdi hauek eskatzeko ikasturte bakoitzaren kudeaketarako egutegiak ezartzen duen epea irekitzen da.

Aurkezten ez banaiz, deialdia galtzen dut?

Ikasleak azterketa egiteko eskubidea du baina ez derrigorra. Hau da, ez bazara azterketara joaten, ez duzu deialdia galduko..

Azterketa ikusi eta alde egin ahal dut?

Batzuetan entzuten da ikaslea azterketara aurkez daitekeela, kontsultatu eta epe zehatz batean ezin duela egin ikusten badu, joan daitekeela. Ideia hori okerra da. Araudiak ez du

aukera hori ematen. Horrek esan nahi du irakaslea ez dagoela aukera hori emateko derrigortuta eta hortaz, aurkezten bazara, deialdia galduko duzu.

Dena den, irakasleari galdetzea gomendatzen dizugu, zorioneko izan ahal zara eta aukera eman ahal dizu..

Zeintzuk dira 5. eta 6. deialdiak? Zeintzuk dira 5. eta 6. deialdiko epaimahaiaik?

Esan denez, ikasle bakoitzak ditu ikasgai bakoitzeko 6 deialdi: Baina 5.a eta 6.a bereziak dira. Azterketa ez du irakasleak zuzentzen, gaia eman duen ikaslea kanpo egongo da aztertzaile taldetik.

Emandako notarekin ados ez bazaude, beste irakasle batek emandako notarekin egin beharreko urratsak eman beharko dira.

Graziatzko deialdia: Zer da? Nola eskatzen da?

Graziatzko deialdia da ikasgaia gainditzeko, Unibertsitateak ematen dizun azken aukera da. Ziklo bakarreko titulazioetan, graziatzko deialdi bakarra egongo da, baina ziklo bi badira, bi aukera izango dira, bat ziklo bakoitzeko. (80. art.)

Deialdia eskatu ahal izateko, gehienez izan beharko dituzu ziklo bakoitzeko hiru ikasgai. Kreditu bidez egituratutako planak badira, gehienez izango dira 36 kreditu.

BESTELAKO GAIAK

Zer gertatuko da irakasleak ez baditu notak sinatzen ezarritako epe barruan?

Kasu honetan, Ikasle Batzordearengana joan ahal zara eskudun organoari honen berri eman diezaion eta EHUren Estatutuetan ezarritako neurrien araberako erabakiak har ditzan. (47.1c art.)

Ikasleak , lortutako noten egiaztagiria eskatu ahal du? Non eskatu behar da?

Bai. Egiaztagiri hau doakoa da eta informaziorako balio du. Agiri hau Zentroko idazkaritzan eskatuko da eta Idazkaritzako Ne-goziatuko Buruzagitzak sinatu beharko du. (47.2. art.)

Noiz arte gorde behar dira notak?

Zentroek ezartzen duten arte.

Zer dira Epaimahai bateratuak?

Epaimahai bateratuak dira ikasgaia partekatzen duten irakasle taldeak ostutakoak. Adostutako irizpideak izango dituzte ikasurte hasieratik. (47. art)

Egin daiteke?

Bai. Zentroko Araudiak hala ahalbidetzen badu, ebaluazio bateratua egin ahal izango da hiru irakaslek osatutako epaima-

haien bidez, edo ikasgaiko irakasle guztien bidez, 1etik 4rako deialdietan egon ezkeru. (47.4. art.)

Eta 4.a baino goragoko deialdian banago?

Kasu honetan azterketa Ikasgaiko departamentuko irakasleek osatutako epaimahaiak aztertuko du. Kontuan izango dira ikaslearen ikasketa historiala eta bestelako inguruabarrak.

Epaimahai honen osaketa publiko egin beharko da lehen hiru hilabetean eta Zentroko Batzordeak izendatuko du. (48. art.)

Eta ez bagaude notarekin ados?

Erreklamazioa egiteko prozesura bera erabiliko da, baina oraingoan epaimahaiaren aurrean egingo da.

AZTERKETAK ERREPIKATZEA

Noiz dut azterketa errepikatzeko eskubidea? (49.2d. art.)

- Ikasgelan eman ez diren gaiak sartu direnean. (49.2.d.1. art.)
- Bestelako arrazoi handi batengatik, ikasleri osoa eragin duten gertakari handiak izan direnean eta azterketa oztopatu dutenak.
- Irakasleak ez badu “*venia docendi*”

- Ezarritakoez besteko azterketa sistema erabiltzen bada.
- Zentroko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen duenean.

KONPENTSAZIO EBALUAKETA

Zer da konpentsazio Ebaluaketa?

Ikasgai batekin konpentsazio ebaluaketa egiteak suposatzen du ikasgaia gainditzea azken azterketa egin barik, beti ere, ondoren azaldutako baldintzak betetzen badira.

Baina, nork egingo dit konpentsazio ebaluaketa?

Gaur egun Konpentsazio Epaimahaiaren bi maila daude: Bat da zure Zentrokoa eta bestea Unibertsitate osorako.

Kompentsazio Epaimahaia arlo ezberdinetako 6 irakaslek osatzen dute eta hauek Zentroko Batzordeak izendatzen ditu: Gainera, bilera hauetara joan daiteke Zentroko Ikasle Batzordeak izendatutako ikasle bat. Ahotso izango du , baina ez bo-toa. (57.2. art.)

Beste epaimahai bat dago Unibertsitatean eta Errektoregoaren mende. Hara joan beharko da Zentroko Epaimahaia-ren ebazpenarekin ez bazaude ados. (57.4. art.)

Zer baldintza bete behar dut?

Konpentsaziozko ebaluazioa eskatu ahal izango duzu, matrikulatuta bazaude , ikasgaiko deialdiak ez badituzu agortu, bestelako baldintzez gain . (59.2. art)

Ikasgaia metodo honen bidez gainditzeko asmoa baduzu, araudiari begiratzea edo guri galdetzea gomendatzen dizugu.

Konpentsazio-ebaluazioa eskatu nahi dut. Noiz egin behar dut?

Baliozkotzea irailleko deialdia amaitu ostean eskatu beharko duzu.

Fakultateko Epaimahaiaren erantzuna 2008ko urriaren 31 a baino lehenago eman beharko da: Adostasunik ez badago, urte bakoitzeko azaroaren 10era arteko epea dago.

Oraindik ere ez bazaude emaitzekin ados, hilabeteko epean goragoko errekurtsioa aurkeztu ahal duzu Konpentsazio Orokorreko Epaimahaian. (58. art.)

Zer ondorio dago nire espedienterako , horrela gainditzen badut?

Araudiaren arabera, konpentsazioz gainditzeak suposatzen du nahiko batez gainditzea, hau da espedientearen baremaziorako 1eko balioa izango du. (62.3. art.)